

IRAKASKUNTZA-GIDA 2019/20

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25058 - Familiaren Psikologia

ECTS kredituak: 4,5

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Familiaren Psikologia irakasgaiak, ikuspegi ekologiko, elkarrekintzazko eta sistemikotik ulertuta, informazio zientifiko eguneratua biltzen du familia-testuinguruak haur garapen psikologikoan (bere eremu kognitibo eta sozioemotionalan) duen eraginaren inguruan. Bere formaziozko helburu nagusia da ikasleek familia-testuinguru anitzetan ebaluatu eta esku hartu ahal izateko ezagutzazko eta ekitezko gaitasunak gara dezaten.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgaiaren berariazko gaitasunak

- 1 Famili testuinguruaren eta garapen psikologikoaren arteko erlazioak ezagutu.
- 2 Famili sistemaren atzera elikadura eta auto erregulazioak detektatzeko eta analitzatzeko gai izan.
- 3 Famili testuinguruaren esku-hartze eskakizunak identifikatzeko gai izan.
- 4 Famili testuinguruak ebaluatzeko tresna espezifikoak erabiltzeko gai izan.
- 5 Garapen psikologikoa indartzeko helburuarekin, famili testuinguruak optimizatzeko esku-hartze estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izan.
- 6 Diziplinarteko taldeetan lan egiteko gai izan.
- 7 Ahozko zein idatzizko txostenak egiteko gai izan.
- 8 Famili esku-hartze arloan psikologoaren funtzio eta ardura etikoak ezagutu.
- 9 Familiaren psikologiako dokumentazio iturri desberdinak erabiltzeko eta informazioa lortzeko beharrezko estrategiak erabiltzeko gai izan.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

I. ATALA: SARRERA

01. GAIA: Ikasketa objektua: familiaren antropologia, historia eta soziologia. (ordu teoriko bat).
02. GAIA: Famili testuinguru eta garapen psikologikoa: marko teorikoa (3 ordu).
02. Bis GAIA: Euskal Familia?

II. ATALA: FAMILIA-TESTUINGURUA ETA GARAPEN PSIKOLOGIKOA: : Gurasotasunaren Curriculum Optimoa (GCO)

03. GAIA. GCO: Familia eta ezagutzaren eta hizkuntzaren garapena (4 o.)
04. GAIA. GCO: Familia eta garapen sozio-emozionala (4 o.)
05. GAIA. GCO: Familian, gizarte testuinguru eta ingurune fisikoa antolatzea (4 o.)
06. GAIA. GCO: Zeharkako aldagaiak (2 o.)
07. GAIA. Garapen psikologikoa famili egitura berrietan (2 o.)
08. GAIA. Hezkuntza disfuntzionala: tratu txarrak, utzikeria eta gehiegikeria (1 o.)

III. ATALA: FAMILIA-TESTUINGURUEN EBALUAZIOA, IKERKETA ETA ESKU-HARTZEA

09. GAIA: Ikerkuntza eta ebaluazioa famili testuinguruetan. (2 o.)
10. GAIA: Esku-hartzea familia-testuinguruetan: gurasotasuna (1 o.)

Gelako Praktika 1: Oinarri Antropologikoak.

Gelako Praktika 2: Oinarrizko kontzeptuak barneratzea (tailerra 1)

Gelako Praktika 3: Garapen kognitiboa eta hizkuntzarena estimulatzea (tailerra 2)

Gelako Praktika 4: Garapen kognitiboa eta hizkuntzarena estimulatzea (tailerra 3)

Gelako Praktika 5: Garapen sozio-emozionala estimulatzea (tailerra 4)

Ordenagailu Praktika 1: Testuinguru fisikoa eta soziala antolatzea (tailerra 5)

Ordenagailu Praktika 2, 3 eta 4: Gurasotasunaren curriculum optimoa (tailerra 6)

Ordenagailu Praktika 5: Garapen psikologikoa familia-egitura berrietan (tailerra 7)

Tailerra 8: Disfuntziozko hazkuntza: tratu txarrak, utzikeria, gehiegikeria.

Tailerra 9: Gurasotasunaren oinarriak.

Mintegia 1: Etxadi-Gangoiti Eskala aplikatzeko jarraibideak

Mintegia 2: Etxadi-Gangoiti Eskalan lortutako emaitzen aurkezpena

MINTEGIAK, GELAKO PRAKTIKAK, TAILLERRAK ETA ORDENAGAILU-PRAKTIKAK

• Mintegiak: famili testuinguruak ebaluatzeko tresnak aplikatu.

• Bideo eta ikus-entzunezko materialak.

• Irakurgai osagarriak.

• 5 gelako praktika, 9 tailer, 5 ordenagailu praktika eta 2 mintegi.

TALDEKA EGIN BEHAR DEN PRAKTIKA

• Famili testuinguruak ebaluatu Etxadi-Gangoiti Eskala aplikatuz (Arranz, Olabarrieta, Martín. Manzano y Galende, 2102).

• 1. Mintegian eskala azaldu, benetako familia bati aplikatu ahal izateko.

• Tutoretza orduetan taldeak irakaslearekin bilduko dira zalantzak argitzeko eta eztabaidatzeko (beharrezko materialak eta irizpideak moodle plataforman).

METODOLOGIA

• Familiaren Psikologiako atal teorikoaren ebaluazioa bikoitza da: lehenengo ezagutzazko konpetentziak ebaluatzen dira, hau da, datu zientifikoak ezagutzea eta ikuspegi sistemiko, ekologiko, elkarreragile eta hezkuntzazkoa barneratzea. Era berean, konpetentzia exekutiboak ebaluatzen dira, hau da, famili testuinguruetan ebaluazio eta esku-hartze estrategiak diseinatzean zetrartzen diren trebetasun praktikoak jasotzea.

• Ezagutzak: froga objektiboaren bitartez ebaluatzen dira (20 galdera 4 erantzunekin; zuzenak puntu 1 eta erroreak 0.25 penalizatu). Azken kalifikazioaren %40.

• Ikuspegiaren barneratzea: ikuspegi sistemiko, ekologiko, elkarreragile eta hezkuntzazkoa barneratzea 10 froga objektiboren bitartez ebaluatzen da (10 galdera 4 erantzunekin; zuzenak puntu 1 eta erroreak 0.25 penalizatu). Azken kalifikazioaren %20.

• Praktikak: froga objektiboren bitartez ebaluatzen dira (10 galdera 4 erantzunekin; zuzenak puntu 1 eta erroreak 0.25 penalizatu). Azken kalifikazioaren %20.

• Falta den beste %20: taldeka egin behar den txostenaren bitartez (mintegietan azaldu eta aurkeztu): famili testuinguru bat ebaluatu. Taldeak 4-6 ikaslez osatuko dira. Txostena derrigorrezkoa da eta azken kalifikazioa emateko froga objektiboa gainditu beharko da.

• Kalifikazioa hobetgu nahi duten ikasleek programako praktiken txostenak entregatzea dute.

• Kalifikazio osoa azterketa bakarrean lortu nahi duten ikasleek, lehen aipatutako azterketa berbera egin beharko dute, %80ko balioarekin, eta beste %20a mintegien inguruko 2 galdera ireki erantzunez

DEIALDIARI UKO EGITEA: IKASGAI HONETAN, AZTERKETARA EZ AURKEZTEA NAHIKOA IZANGO DA DEIALDIARI UKO EGITEKO

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	24	4	8				9		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	36	6	12				13,5		

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 50
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontaktzen hasita.

1. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

2. Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3. Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

1. Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.

2. Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.

3.– Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jardura izango ditu, emaitzok ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gorde ahal izango dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzok ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

FAMILIAREN PSIKOLOGIAKO GIDA DIDAKTIKOA: e-gelan eta kopistegian eskuragai.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

IRAKASGAIRAKO MATERIALAK

• Programa eta gida didaktikoa (kopistegian eta moodlen).

• ESKULIBURUAK:

• Rodrigo, M. J. eta Palacios, J. (2000). Familia eta Giza Garapena. Bilbo: UEU (Berrikuspen teknikoak: Fernando Olabarrieta).

• Arranz, E. (2004). Familia y Desarrollo Psicológico. Madrid: Pearson.

• Arranz, E. y Oliva, A. (Coords.) (2010). Desarrollo psicológico en las nuevas estructuras familiares. Madrid: Pirámide.

• Gelako praktiketarako dokumentuak eta materialak (kopistegian eta e-gelan).

Gehiago sakontzeko bibliografia

IRAKASGAIRAKO MATERIALAK

• Programa eta gida didaktikoa (kopistegian eta moodlen).

• ESKULIBURUAK:

• Rodrigo, M. J. eta Palacios, J. (2000). Familia eta Giza Garapena. Bilbo: UEU (Berrikuspen teknikoak: Fernando Olabarrieta).

• Arranz, E. (2004). Familia y Desarrollo Psicológico. Madrid: Pearson.

• Arranz, E. y Oliva, A. (Coords.) (2010). Desarrollo psicológico en las nuevas estructuras familiares. Madrid: Pirámide.

• Gelako praktiketarako dokumentuak eta materialak (kopistegian eta e-gelan).

Aldizkariak

Journal of Family Studies

Journal of Family Psychology

Early Child Development and Care.

Interneteko helbide interesgarriak

• www.ehu.es/haezi.org : Familiaren Psikologian irakskuntzan eta ikerkuntzan lan egiten duen unibertsitate taldea (proiektuak, argitalpenak, zerbitzuak…).

• www.etxadi.org: UPV/EHUrekin elkarlan hitzarmena ETXADI Taldearekin (Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa).

• www.bilbao.net: FAMILIAN HAEZI (hazi eta hezi), Bilboko Udalaren Wegunean. Familientzako seme-alaben (0-18) hazkuntza eta hezkuntzarako materialak.

• www.ejgv.euskadi.net/ GURASOTASUNA Webgunea, “gurasotasunaren” inguruko ataria familiekin lan egiten duten profesionalentzako.

OHARRAK

E-gelan materialen eta zehaztasunen berri.